

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

6323

AGINDUA, 2018ko abenduaren 12koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako berariazko gastu bakoitzeko 2019. urtean gehienez ere eman daitezkeen diru-kopuruak eta laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzarentzat 2019rako aurrekontu-mugak finkatzen.

Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak honako baliabide hauek arautzen ditu: bazterkeria-arriskua prebenitzekoak, bazterkeria pertsonala nahiz gizarte- eta lan-arloko bazterkeriako egoerak arintzekoak, eta herritarren gizarte-eskubideak berrantolatzeko behar adina baliabide pertsonal, sozial edo ekonomikorik ez dutenen gizarteratzea erraztekoak. Horien artean daude Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL).

Larrialdietarako laguntzaren kontzeptuaren gakoa da behar larri eta berehalakoan baliabide ekonomikorik ez edo eskasak izatea behin-behinean, guk sortu ez dugun egoera bati aurre egiteko. Egoera horiek estali egin behar dira herrialdean dagoen ongizatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoan diru-sarrerak bermatzeko errentaren laguntzen gehieneko muga araberako bizimodu izateko.

Ezusteko gertakari batek eta luzaroan diru-laguntzak jasota bizitzetik sortutako baliabide ekonomiko eskasiak eragindako larrialdiko egoera ekonomikoak estaltzea da kontua. Pertsonen bizitzan zehar, jakineko momentu batean edo hainbat unetan gerta daitezke egoera horiek. Premiazko ondasunak ez izatera edo gabetasuna dakarten egoerak ekiditeko baliabide aringarri bezala erabiltzen dira GLLak.

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 49. artikulua ezartzen ditu GLL gisa emandako laguntzen zenbatekoak finkatzeko aintzat izan behar diren irizpideak. Zehazki, 1. paragrafoan inoiz ere gainditu ezin izango den kopuruetariko bat jasotzen da, hau da, aurreikusten den berariazko gastu bakoitzeko araudi bidez gehienez finkatutako diru-kopurua. Legezko aurreikuspen horretan oinarrituz, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4 /2011 Dekretuak 9. artikuluan ezartzen duenez, berariazko gastu bakoitzerako gizarte-larrialdietarako laguntza gisa urtean gehienez emango diren diru-kopuruak urtero ezarriko dira, agindu bidez.

Laguntzak emateari dagokionez, abenduaren 23ko 18/2008 Legeko 50.1 artikulua xedatzen duenez, oinarrizko gizarte-zerbitzuek benetako premia-egoera dagoela eta helburu horretarako kontsignatutako kreditua ere badagoela egiaztatu eta gero emango dira GLLak.

Horren ildotik, 2019ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorrean, 23.000.000 euroko ordainketa-kreditua dago ekitaldi honetan diru-laguntza horietarako, eta horiek dira Agindu honetan esleituko direnak.

2019ko ekitaldi-hasieratik, behar duten pertsonen ahalik eta eperik motzenez arreta emateko, arau honen izapidetze aurreratua eratuko da, azken xedapenetatik lehenengoan ezarritako legezko baldintzapean.

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 88.d) artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie gizarte-larrialdietarako laguntzak onartu ala ukatzea eta ordaintzea. Horretarako, udalek alde aurretik jakin behar dute urtean gehienez erabil dezaketen diru-kopurua, betiere aurrekontu-ekitaldi bakoitzean laguntza horietara zuzendutako guztizko aurrekontu-esleipenaren barruan.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzen dituen Dekretu arautzaileak ezartzen du programari esleitutako urteko baliabideak udalei banatzeko eta transferitzeko prozedura. Baliabideen banaketa honako printzipio hauetan oinarritzen da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, urtero, GLLen zenbatekoak ordaintzeko beharrezko baliabide ekonomikoak egongo dira jasota.

b) Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak aztertu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan gizarte-larrialdietarako laguntzak ordaintzeko dagoen dirua erkidego barruko lurralde historikoen eta udalerrien artean nola banatuko diren zehazteko irizpideak gizarte-zerbitzuetako eskumena daukan Eusko Jaurlaritzaren sailak zehaztuko ditu urtero, eta beharren adierazleei begira zehaztu beharko ditu batez ere.

c) Erreferentziako irizpideen aplikazioari jarraituz, Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuetako eskumena duen sailak udal bakoitzari dagokion gehieneko aurrekontua finkatuko du, horren guztia berri emanez EHAAn urtero argitaratuko den aginduaren bitartez.

d) Erreferentziako irizpideen aplikazioa oinarri harturik, udal bakoitzari zein aurrekontu-muga dagokion zehaztu ondoren, Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak kopuruok transferituko dizkio udal bakoitzari. Transferentziak hiru hilean behin egingo dira.

e) Eusko Jaurlaritzan aurrekontu-ekitaldia ixten denean, udal bakoitzari dagozkion kopuru guztiak erregulatu beharko dira behin betiko, aurrekontu-ekitaldi horretan laguntzak emateko benetan hartutako ebazpenetan oinarrituta, eta kontuan hartuz, horretarako, udalek bidalitako dokumentazioa.

Prozedura hori aplikatuz, banaketarako irizpideak eta aurrekontuetako gehieneko zenbatekoak ezarri dituzten aginduak argitaratu ditu sail honek urtero. Horretaz gain, ekitaldiaren amaieran, esleitutako kredituak birdoizten zituzten eta aurrekontu-muga berriak ezartzen zituzten aginduak eman dira.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak emateko baliabide ekonomikoak Eusko Jaurlaritzak banatuko dizkie udalei, horiek ez badute beste prozedura bat adostu dagokien foru-aldundiarekin edo mankomunitateen bidez, urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuak gehitutako bigarren xedapen gehigarriari jarraituz. Dekretu horrek Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Dekretua aldatzen du, zeinak udalerrria baino lurralde-eremu handiagoko erakundeen partaidetza aurreikusten baitu, eta GLLak kudeatzen dituzten mankomunitateei eta foru-aldundiei laguntzak zuzenean ordaintzea ahalbidetzen, betiere udalek mankomunitateen bidez partekatutako kudeaketa-formulak erabiltzen badituzte edo aldundiei eskuordetu badiote prestazioa ematea.

Azkenik, gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzen dituen Dekretuak dekretua bera garatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena ematen dio Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuari.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da 2019ko ekitaldirako gizarte-larrialdietarako laguntzetan (GLL) bildutako berariazko gastu bakoitzari orokorrean eman beharreko gehieneko zenbatekoak finkatu eta laguntza horiek emateko esleitutako kredituak hainbat udalerriren artean banatzeko irizpideak ezartzea. Horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari urte honetan dagokion aurrekontu-muga zehazten da.

2. artikulua.– Gehienezko urteko zenbatekoak.

1.– 2019rako, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen gehieneko zenbatekoak bizikidetzta-unitate bakoitzeko (hemendik aurrera, BU), aurreko artikuluan aipatutako berariazko gastu bakoitzerako, honako hauek dira:

a) Alokairu-gastuak:

a.1.– Errentari bakarreko etxebizitzaren kasuan, edo GLLa eskatu duen BU bakar batek beste batekin alokairuan hartu badu edo beste bati alokairuan utzi badio, gehienezko laguntza 250 eurokoa izango da hilean, eta ezingo du gainditu etxebizitzaren alokairu-prezioaren edo beste batekin batera alokairuan hartzeagatik edo beste bati alokairuan emateagatik ordaindutako % 70.

a) 2.– Etxebizitzan maizter bat baino gehiago badago edo azpierreentatzeak egin badira, ez dira bi eskaera baino gehiago onartuko, indarrean den araudian xedatutakorekin koherente izanik, eta bizikidetzta-unitateen kopuruarekin zatituko da. Bi bizikidetzta-unitaterentzako muga 125 euro hilean izango da, eta bien artean ezingo dute gainditu etxebizitzaren alokairu-prezioaren % 80.

a.3.– Etxebizitzan apopilo- edo ostatu-kontratupeko jendea badago, gehienez bi eskabide egin ahalko dira, lehen esandakoaren arabera, eta laguntza, gehienez, 125 eurokoa hilean izango da.

a.4.– Legez eraturako hotel, hotel-apartamentu eta pentsioetan bizi direnen kasuan, hilean 250 euro izango da muga bizikidetzta-unitateko. Kasu horretan, BUren muga ez da bi izango, baizik eta establezimenduan legez onartutako gehieneko gela kopuruaren arabera.

b) Gizarte-larrialdian egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuengatik 250 euro gehienez hileroko, eta ezin izango da gainditu kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren % 70.

c) Elektrizitate-, gas- edo etxerako beste erregai-horniketa batzuek eragindako energia-gastuengatik, 900 euro urtean. Bi BUren kasuan, bakoitzari gehienez 450 euro urtean.

d) «Linea zuriko» etxe-tresna elektrikoaren eta altzarien gastuak direla-eta, gehienez 1.850 euro urtean. Bi BUren kasuan, bakoitzari gehienez 925 euro urtean.

e) Etxebizitza konpontzeko, egokitzeko eta/edo oinarritzko instalazioak egiteko gastuak direla-eta, gehienez 1.850 euro urtean. Bi BU baldin badira, bakoitzari gehienez 925 euro urtean.

f) Ohiko etxebizitza edo bizitokia eduki eta mantendu ahal izateko beharrezkoak diren gastuengatik, gehienez 900 euro urtean. Bi BUren kasuan, bakoitzari gehienez 450 euro urtean. Kontzeptu honek honako gastuak hartzen ditu: ura, zaborrak, estolderia, ondasun higiezinaren gaineko zergari dagozkionak –ondasunak landa- zein hiri-eremuak izan– eta jabekideen erkidegoaren kuotatik eratorritako gastuak, bai eta etxebizitzaren segurtasunarekin zerikusia dutenak ere.

g) Bizikidetzta-unitateko kide batek edo gehiagok dituzten oinarrizko premiei buruzko gastuengatik, esate baterako: jantziak, hezkuntza eta prestakuntzakoak eta osasun-arretakoak, betiere sistema publikoek gastu horiek estaltzen ez dituztenean, urtean 1.850 euro gehienez.

h) Aurretiko zorpetze-gastuak direla-eta, gehienez 3.000 euro urtean. Bi BUren kasuan, bakoitzari gehienez 1.500 euro urtean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, a), b), c), d), e), f) eta g) idatzi-zatietan aipatutako kontzepturen batengatik aurretik ezarritako zorrengatik gastuak direla-eta urtean gehienez ezar daitezkeen diru-kopuruak ezin izango dira kasu bakoitzean aipatutako idatzi-zatietan kontzeptu horietarako aurreikusitako gehieneko diru-kopuruak baino handiagoak izan.

2.– Dena den, GLLak jasotzea artikuluan honen 1. ataleko a), b), c), d), e) eta f) apartatuetako kontzeptuetan, ez da bateragarria Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (aurerantzean, EPO) jasotzearekin ez eta etxebizitza legez okupatzeko eskubide subjektiboa baliatzeko etxebizitzarako prestazio ekonomikoarekin ere (aurrerantzean EPE).

Artikulu honen 1. paragrafoko a) apartatuan adierazitako gastuetarako GLLa jasotzea ez da bateragarria Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren ezein modalitaterekin (aurrerantzean DSBE).

3.– Eskabide bakoitzari esleitu dakiokeen zenbatekoa eskatzailearen baliabideen arabera eta bizikidetzako gainerako kideen diru-sarreraren arabera ezartzen den ehunekoa aplikatzearen emaitza izango da. Ehuneko hori artikulu honetan kontzeptu bakoitzerako ezartzen den gehienezko kopuruaren gainean aplikatuko da, edo benetako gastuaren kopuruaren gainean, kopuru hori kontzeptuko gehienezko kopurua baino txikiagoa bada, Gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzen dituen Dekretuko 10.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. I. eranskinean jasota daude kalkulua egiteko behar diren bi taulak: populazio orokorrarena eta pentsiodunei aplikatzeko.

4.– Kasu partikular bakoitzean aplika daitezkeen zenbatekoa udal eskudunak murriztu beharko du, dauden aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta; kasu horretan, kontzeptu bakoitzarengatik eman daitezkeen gehieneko zenbatekoa eskatzaile guztien eskaerari modu berean erantzuteko udalaren ustez nahikoa den ehuneko negatiboan murriztu beharko da.

3. artikulua.– Eskaera-pilaketa eta GLLak eska ditzaketan BUen gehieneko kopurua.

Helbide berean bizi diren bi BUK gehienez ere eskatu ahalko dituzte Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazioak, GLLak barne. Beraz, zenbaketa horretarako aintzat hartuko dira sistemako edozein prestazio –DSBE, EPO edo baita GLLak ere– jasotzeko eratutako BUak, baina lehentasuna izango du zuzenbideko prestazioak –alegia, DSBEa eta EPOa– jasotzeak.

GLLren bi eskaera baino gehiago pilatuz gero, eskaeraren antzinatasunaren arabera artatuko dira, gizarte-zerbitzuek txosten sozialaren bidez bestelako irizpiderik finkatu ezean.

4. artikulua.– Kredituak banatzeko irizpideak.

1.– Gizarte-larrialdietarako laguntzak emateko esleitutako kredituak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien artean banatzeko irizpideak, zeinak beharrian-adierazleei jarraituz ezartzekoak baitira, honako parametro hauen arabera finkatuko dira 2019an:

– 2018ko irailaren 30ean, udalerrian dagoen Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten unitateen kopurua:

– Diru Sarrera Bermatzeko Errenta edo bestelako prestaziorik jaso ez eta 2018ko irailaren 30era arte udalerrian Lanbiden izena eman duten pertsonen kopurua.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, 400 biztanle baino gutxiagoko udalerriei udalerrri horiei guztira legokiekeen zenbatekoaren batz bestekoaren zenbateko baliokidea bermatzen zaie Gizarte Larrialdietarako Laguntzen programa egikaritzeko.

5. artikulua.– Aurrekontu-mugak.

4. artikuluan adierazitako irizpideak aplikatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko udal bakoitzak 2019an gizarte-larrialdietarako laguntzak ordaintzeko zenbat diru erabil dezakeen ezarri da aurrekontuetan. Agindu honen II. eranskinean ageri dira zenbatekoak.

6. artikulua.– Banaketa udalez gaindiko beste erakunde batzuen bidez egitea.

Udalek foru-aldundira jo badute edo partzuergoen, mankomunitateen edo beste formula batzuen bitartez kudeaketa partekatzeko bidea hartu badute gizarte-larrialdiko laguntzen baliabide ekonomikoak banatzeko, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari jakinarazi beharko diote udal bakoitzari esleitutako kopuruak udalaz gaindiko erakunde horietara egin beharreko transferentziak egiteko.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen Dekretuko 33. artikuluan aipatzen diren datuen bidalketa, Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistemaren funtzionamendua araututa ez dagoen bitartean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren 2004ko urriaren 8ko Aginduan ezarritako moduan egingo da. Agindu horren bidez argitaratu zen Gizarte Larrialdietarako Laguntzen eskabide-eredu berria, eta prestazio horiei buruzko dokumentazioa euskarri informatikoan bidaltzeko modua arautu zen (2004ko azaroaren 17ko EHAA, 220 zenbakikoa). Edo, bestela, aipatutako aginduan ezarritakoa ordezkatzeko duen euskarri informatiko estandarizatuaren bitartez, diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak zehazten duen moduan, datuen edukiari buruz aipatutako 33. artikuluan eskaetzen diren baldintzak betez, betiere.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditentziaz izapidetzea arautzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioari sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan bildutako ondorioetarako, Agindu honetako laguntzen ebazpena emateko Euskal Autonomia Erkidegoko 2019ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan kreditu egokia eta nahikoa izan behar da.

Bigarrena.– Agindu honek 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 12a.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

2018ko abenduaren 26a, asteazkena

I. ERANSKINA

OROKORRA 2019			
Urteko sarreren muga KUren neurriaren arabera			
Kide-kop.	1	2	3 edo gehiago
%	693,00	889,88	984,38
100	8.316,00	10.678,56	11.812,56
99	8.399,16	10.785,35	11.930,69
98	8.482,32	10.892,13	12.048,81
97	8.565,48	10.998,92	12.166,94
96	8.648,64	11.105,70	12.285,06
95	8.731,80	11.212,49	12.403,19
94	8.814,96	11.319,27	12.521,31
93	8.898,12	11.426,06	12.639,44
92	8.981,28	11.532,84	12.757,56
91	9.064,44	11.639,63	12.875,69
90	9.147,60	11.746,42	12.993,82
89	9.230,76	11.853,20	13.111,94
88	9.313,92	11.959,99	13.230,07
87	9.397,08	12.066,77	13.348,19
86	9.480,24	12.173,56	13.466,32
85	9.563,40	12.280,34	13.584,44
84	9.646,56	12.387,13	13.702,57
83	9.729,72	12.493,92	13.820,70
82	9.812,88	12.600,70	13.938,82
81	9.896,04	12.707,49	14.056,95
80	9.979,20	12.814,27	14.175,07
79	10.062,36	12.921,06	14.293,20
78	10.145,52	13.027,84	14.411,32
77	10.228,68	13.134,63	14.529,45
76	10.311,84	13.241,41	14.647,57
75	10.395,00	13.348,20	14.765,70
74	10.478,16	13.454,99	14.883,83
73	10.561,32	13.561,77	15.001,95
72	10.644,48	13.668,56	15.120,08
71	10.727,64	13.775,34	15.238,20
70	10.810,80	13.882,13	15.356,33
69	10.893,96	13.988,91	15.474,45
68	10.977,12	14.095,70	15.592,58
67	11.060,28	14.202,48	15.710,70
66	11.143,44	14.309,27	15.828,83
65	11.226,60	14.416,06	15.946,96
64	11.309,76	14.522,84	16.065,08
63	11.392,92	14.629,63	16.183,21
62	11.476,08	14.736,41	16.301,33
61	11.559,24	14.843,20	16.419,46
60	11.642,40	14.949,98	16.537,58
59	11.725,56	15.056,77	16.655,71
58	11.808,72	15.163,56	16.773,84
57	11.891,88	15.270,34	16.891,96
56	11.975,04	15.377,13	17.010,09
55	12.058,20	15.483,91	17.128,21
54	12.141,36	15.590,70	17.246,34
53	12.224,52	15.697,48	17.364,46
52	12.307,68	15.804,27	17.482,59
51	12.390,84	15.911,05	17.600,71
50	12.474,00	16.017,84	17.718,84

2018ko abenduaren 26a, asteazkena

Pentsiodunak 2018			
Urteko sarreren muga KUren neurriaren arabera			
Kide-kop.	1	2	3 edo gehiago
%	787,51	984,38	1.063,13
100	9.450,12	11.812,56	12.757,56
99	9.544,62	11.930,69	12.885,14
98	9.639,12	12.048,81	13.012,71
97	9.733,62	12.166,94	13.140,29
96	9.828,12	12.285,06	13.267,86
95	9.922,63	12.403,19	13.395,44
94	10.017,13	12.521,31	13.523,01
93	10.111,63	12.639,44	13.650,59
92	10.206,13	12.757,56	13.778,16
91	10.300,63	12.875,69	13.905,74
90	10.395,13	12.993,82	14.033,32
89	10.489,63	13.111,94	14.160,89
88	10.584,13	13.230,07	14.288,47
87	10.678,64	13.348,19	14.416,04
86	10.773,14	13.466,32	14.543,62
85	10.867,64	13.584,44	14.671,19
84	10.962,14	13.702,57	14.798,77
83	11.056,64	13.820,70	14.926,35
82	11.151,14	13.938,82	15.053,92
81	11.245,64	14.056,95	15.181,50
80	11.340,14	14.175,07	15.309,07
79	11.434,65	14.293,20	15.436,65
78	11.529,15	14.411,32	15.564,22
77	11.623,65	14.529,45	15.691,80
76	11.718,15	14.647,57	15.819,37
75	11.812,65	14.765,70	15.946,95
74	11.907,15	14.883,83	16.074,53
73	12.001,65	15.001,95	16.202,10
72	12.096,15	15.120,08	16.329,68
71	12.190,65	15.238,20	16.457,25
70	12.285,16	15.356,33	16.584,83
69	12.379,66	15.474,45	16.712,40
68	12.474,16	15.592,58	16.839,98
67	12.568,66	15.710,70	16.967,55
66	12.663,16	15.828,83	17.095,13
65	12.757,66	15.946,96	17.222,71
64	12.852,16	16.065,08	17.350,28
63	12.946,66	16.183,21	17.477,86
62	13.041,17	16.301,33	17.605,43
61	13.135,67	16.419,46	17.733,01
60	13.230,17	16.537,58	17.860,58
59	13.324,67	16.655,71	17.988,16
58	13.419,17	16.773,84	18.115,74
57	13.513,67	16.891,96	18.243,31
56	13.608,17	17.010,09	18.370,89
55	13.702,67	17.128,21	18.498,46
54	13.797,18	17.246,34	18.626,04
53	13.891,68	17.364,46	18.753,61
52	13.986,18	17.482,59	18.881,19
51	14.080,68	17.600,71	19.008,76
50	14.175,18	17.718,84	19.136,34

I. eranskineko taulen azalpena:

- Elkarbizitzako kide-kopuruari dagokio zutabe bakoitza: bat, bi, hiru edo gehiago.
- Hiru zenbaki horien azpian jasota dago inongo sarrerarik ez duen unitate bati legokiokeen DSBEn hileroko zenbatekoa, Sarrerak bermatzeko 18/2008 Legearen 20. artikulua araber.
- Hurrengo lerroan, DSBEn urteko zenbatekoa.
- Hurrengo lerroetan ageri da, progresiboki, urteko zenbatekoaren % 101, % 10 % 150 arte. Azken horrek markatzen du laguntzak jasotzeko eskubidearen muga.
- Azkenik, hasierako zutabeak adierazten du egoera bakoitzean eman litekeen GLL kontzeptu bakoitzari dagokion gehieneko zenbatekoaren ehunekoa AES.

II. ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzarentzat 2019rako finkatutako aurrekontu-muga.

2019ko GLL diru-esleipena

ARABA

Udalerrria	2019ko diru-esleipena
Agurain/Salvatierra	53.988
Alegria-Dulantzi	22.956
Amurrio	106.701
Añana	1.390
Aramaio	4.676
Armiñon	1.488
Arraia-Maeztu	3.826
Arratzua-Ubarrundia	5.314
Artziniega	20.405
Asparrena	13.603
Aiara	17.642
Mañueta	1.488
Barrundia	3.401
Berantevilla	2.763
Bernedo	2.763
Kanpezu	9.777
Burgelu	1.390
Elciego	7.864
Bilar	2.126
Erriberagoitia	4.676
Harana	1.390
Iruña Oka	28.057
Iruraitz-Gauna	2.126
Kripan	1.390
Kuartango	1.700
Bastida	15.304
Lagran	1.390
Guardia	10.840
Lantziego	8.715
Lantaron	4.038
La Puebla de Labarca	7.439
Laudio	183.432
Legutio	18.492
Lezo	1.390
Moreda Araba	1.700
Navaridas	1.390
Okondo	11.478

2018ko abenduaren 26a, asteazkena

Udalerria	2019ko diru-esleipena
Oion	49.312
Urizarra	1.390
Erribera Beitia	7.864
Samaniego	1.390
Donemiliaga	4.251
Urkabustaiz	12.115
Gaubea	7.439
Eskuernaga	1.488
Vitoria-Gasteiz	2.768.277
Iekora	1.700
Zalduondo	1.390
Zambrana	4.464
Zigoitia	6.377
Zuia	9.352

GIPUZKOA

Udalerria	2019ko diru-esleipena
Abaltzisketa	1.390
Aduna	1.390
Aia	12.541
Aizarnazabal	8.290
Albiztur	1.390
Alegia	18.279
Alkiza	2.338
Alzaga	1.390
Altzo	1.913
Amezketeta	7.864
Andoain	117.541
Anoeta	15.304
Antzuola	7.439
Arama	1.390
Aretxabaleta	40.810
Arrasate/Mondragón	187.471
Asteasu	8.290
Astigarraga	40.810
Ataun	7.652
Azkoitia	96.499
Azpeitia	107.976
Baliarrain	1.390
Beasain	88.422
Beizama	1.390
Belauntza	1.488
Berastegi	3.613

2018ko abenduaren 26a, asteazkena

Udalerría	2019ko diru-esleipena
Bergara	93.735
Berrobi	5.314
Bidania-Goiatz	3.188
Deba	35.284
Donostia	1.533.138
Eibar	302.887
Elduain	1.390
Elgeta	5.739
Elgoibar	93.948
Errenteria	384.719
Errezil	2.126
Eskoriatza	23.806
Ezkio	1.700
Gabiria	1.700
Gaintza	1.390
Gaztelu	1.390
Getaria	13.178
Hernani	173.442
Hernialde	1.390
Hondarribia	107.764
Ibarra	35.709
Idiazabal	8.927
Ikaztegieta	5.739
Irun	630.217
Irura	12.541
Itsaso	1.390
Itsasondo	6.802
Larraul	1.390
Lasarte-Oria	132.420
Lazkao	26.356
Leaburu	2.976
Legazpi	52.925
Legorreta	9.777
Leintz-Gatzaga	1.390
Lezo	47.824
Lizartza	3.613
Mendaro	14.241
Mutiloa	1.390
Mutriku	40.597
Oiartzun	58.452
Olaberria	5.314
Oñati	48.887
Ordizia	84.596
Orendain	1.390
Orexa	1.390

2018ko abenduaren 26a, asteazkena

Udalerría	2019ko diru-esleipena
Orio	37.622
Ormaiztegi	10.628
Pasaia	202.562
Segura	6.589
Soraluze-Placencia de Las Armas	52.288
Tolosa	149.637
Urnieta	42.298
Urretxu	55.051
Usurbil	36.984
Villabona	53.776
Zaldibia	7.864
Zarautz	130.932
Zegama	6.164
Zerain	1.390
Zestoa	32.308
Zizurkil	23.593
Zumaia	65.679
Zumarraga	100.537

BIZKAIA

Udalerría	2019ko diru-esleipena
Abadiño	49.100
Abanto Zierbena	128.807
Ajangiz	1.488
Alonsotegi	41.023
Amorebieta-Etxano	148.999
Amoroto	1.390
Arakaldo	1.390
Arantzazu	2.763
Areatza	10.628
Arrankudiaga	7.864
Arratzu	2.126
Arrieta	3.401
Arrigorriaga	132.207
Artea	5.314
Artzentales	9.777
Atxondo	7.864
Aulesti	2.126
Bakio	26.356
Balmaseda	119.667
Barakaldo	1.257.670
Barrika	13.603
Basauri	504.386
Bedia	9.777

2018ko abenduaren 26a, asteazkena

Udalerría	2019ko diru-esleipena
Berango	57.389
Bermeo	184.920
Berriatua	10.628
Berriz	36.134
Bilbao	5.118.465
Busturia	16.579
Derio	42.723
Dima	10.415
Durango	232.957
Ea	5.739
Elantxobe	4.251
Elorrio	42.298
Erandio	315.852
Ereño	2.551
Ermua	150.912
Errigoiti	3.188
Etxebarri	97.986
Etxebarria	5.739
Forua	8.502
Fruiz	5.101
Galdakao	231.682
Galdames	9.777
Gamiz-Fika	12.541
Garai	1.700
Gatika	11.053
Gautegiz Arteaga	5.739
Gernika-Lumo	148.361
Getxo	698.871
Gizaburuaga	1.390
Gordexola	16.367
Gorliz	54.201
Gueñes	89.697
Ibarrangelu	4.038
Igorre	36.346
Ispaster	4.038
Iurreta	33.158
Izurtza	1.913
Karrantza Harana	44.423
Kortezubi	1.700
Lanestosa	2.763
Larrabetzu	10.415
Laukiz	6.802
Leioa	311.176
Lekeitio	50.587
Lemoa	35.709

2018ko abenduaren 26a, asteazkena

Udalerria	2019ko diru-esleipena
Lemoiz	9.990
Lezama	15.304
Loiu	12.753
Mallabia	6.589
Mañaria	2.551
Markina-Xemein	31.670
Maruri- Jatabe	6.802
Meñaka	3.188
Mendata	1.390
Mendexa	1.390
Morga	3.401
Mundaka	13.603
Mungia	170.892
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz	3.826
Murueta	2.338
Muskiz	95.648
Muxika	8.715
Nabarniz	1.488
Ondarroa	73.756
Orozko	19.130
Ortuella	114.353
Otxandio	10.840
Plentzia	44.636
Portugalete	569.852
Santurtzi	682.079
Sestao	485.044
Sondika	34.433
Sopela	113.078
Sopuerta	25.081
Sukarrieta	3.188
Turtzioz	8.077
Ubide	1.488
Ugao	41.448
Urduliz	33.158
Urduña	49.312
Trapagaran	133.058
Zaldibar	23.806
Zalla	112.653
Zamudio	25.506
Zaratamo	17.642
Zeanuri	7.227
Zeberio	8.290
Zierbena	15.304
Ziortza-Bolibar	2.551